

## **EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIRA ITZULIKO DA MOZART ETA BRAHMS MUSIKAGILEEI ESKAINITAKO SAIO BATEKIN**

**Udako biraren baitan, Donostian izango dira uztailaren 27an, 20:00etan. Sarrerak salgai daude eta 10 eta 14 euroko prezioa dute.**

Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO) Victoria Eugenia Antzokira itzuliko da uztailaren 27an, 20:00etan, Mozart eta Brahms musikagileei eskainitako saio batekin. EGOk lehen aldiz interpretatuko ditu Mozarten 12. Serenata, "maisulan bat", Ruben Gimeno zuzendari artistikoaren hitzetan, eta Brahmsen 1. Serenata, Mozarten inspiratua eta "kontrapuntu bidezko elaborazio zoragarria" duena.

Uztailaren 21etik 28ra bitartean Musikenen egingo den udako topaketarekin hasiko da EGOn 2021eko jardura bizia. Hala, gazteek elkarbizitza eta lanaldi zorrotz bati ekingo diote, Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Hondarribian, udako biraren baitan, izango diren kontzertuak prestatzeko.

### **KONTZERTU BIRA - UDAKO TOPAKETA**

25/07: Euskalduna Jauregia. Bilbao

26/07: Principal Antzokia. Vitoria-Gasteiz

27/07: Victoria Eugenia Antzokia. Donostia

28/07: Itsas Etxea Auditorium. Hondarribia

### **EGITARAUA**

W.A. MOZART: 12. Serenata K.388 do minorren (Nachtmusik)

J. BRAHMS: 1. Serenata Op.11 re maiorren

Rubén Gimeno, zuzendaria

## **SARREREN SALMENTA**

Sarrerak eskuragarri daude Victoria Eugeniako Antzokian eta [www.donostiakultura.eus/sarrerak](http://www.donostiakultura.eus/sarrerak) webgunean.

Prezioa: 10€, 14 €